



## *2009. URTEKO TXOSTENA*

*ALERTAK: ELIKAGAIAK, ANIMALIEN ELIKAGAIAK ETA  
ANIMALIEN GAIXOTASUNAK*

# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## AURKIBIDEA

### 1. ANIMALIEN ELIKAGAIK

- 1.1. Jakinarazpenak sailkatzea
- 1.2. Jakinarazpenetan antzemandako arriskuak
- 1.3. Inplikaturako produktu mota
- 1.4. Jakinarazpenetan inplikaturako lehengaiak
- 1.5. 2006. eta 2009. urteen arteko konparazioa

### 2. ELIKAGAIK

- 2.1. Alerta eta jakinarazpenen kopurua
- 2.2. Antzemandako arriskuen jatorria
- 2.3. Antzemandako arriskuak
- 2.4. Aurreko urteen arteko konparazioa

### 3. ANIMALIEN GAIXOTASUNAK

- 3.1. Jakinarazitako foku-kopurua
- 3.2. Jakinarazitako gaixotasunak
- 3.3. Jakinarazpenen jatorria
- 3.4. 2006. eta 2009. urteen arteko konparazioa







**ANIMALIEN  
ELIKAGAIAK**

### 1.1. JAKINARAZPENAK SAILKATZEA


2009. urtean animalien elikagaiei buruzko 194 jakinarazpen izan dira: horietatik 12 alertak izan dira, 118 informazio-jakinazpenak eta 64 mugan egin diren ukapenak.




RASFFen bidez jasotako jakinarazpenei dagokionez, informazio-jakinazpenen kopuruak gora egin du apurka-apurka. Mugan egin diren ukapenei dagokionez, berriz, urteko azken hiruhilekoan % 60 egin dute gora, aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero.



Espainiak, 2009. urtean, 23 jakinarazpen egin ditu, horietatik 16 urteko azken lauhilekoan. Jakinarazpen gehienak Peruko arrain-irinean antzemandako salmonellak eragin ditu.



Jatorriko herrialdeei dagokienez, hirugarren herrialdeek argitaratu dituzte jakinarazpen gehien (% 58), eta horien artean honako hauek nabarmendu behar ditugu: AEB, Brasil, India, Peru eta Txina.



AEBetan, European baimendu gabe dauden genetikoki eraldatutako organismoek (OGMak) eta Salmonella edo enterobakterioak zituzten txakurrentzako mastekagarriek eragin dituzte jakinarazpen gehienak, 2008. urtean bezalaxe.


Brasilen, berriz, soja-irinean eta txakurrentzako mastekagarrietan antzemandako salmonellak eta kakahueteetako B1 Aflatoxinak eragin dituzte jakinarazpenak.

Espainiak 7 jakinarazpen eragin ditu: horietatik lau hegaztien haragi-irinean antzemandako salmonella eragin dituk, 2 arrain-irinean antzemandako salmonellak eta kadmioak eta 1 gehigarri batean antzemandako dioxinak.

## 1.2. JAKINARAZPENETAN ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

2009an antzemandako arrisku gehienak mikrobiologikoak izan dira (% 52), eta aipagarriak dira baimendu gabeko OGMen presentzia (% 14) eta prozesatutako animalia proteinen presentzia (% 8).

Neurri apalagoan, mikotoxinak (% 9) eta metal astunak (% 6) antzeman dira.




Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, Salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehienak. Salmonella antzeman den lehengaien artean soja-irina nabarmendu behar dugu, 25 jakinarazpenetan agertu baita; 22 jakinarazpenetan azaldu da arrain-irina, 3tan haragi-irina eta 4tan txakurrentzako mastekagarriak.

Enterobakterioak antzeman diren lehengai arrain-irina (5) izan da.

Baimendu gabeko OGMei dagokienez, azpimarratzekoa da azken lauhilekoan, liho-hazia egon dela inplikaturik jakinarazpenetan. Urteko bigarren lauhilekoan, arrisku horrek kaltetu dituen lehengaiak soja-irina eta laguntza-animalientzako pentsuak izan dira.


Lauhilekoka, mikrobiologiak eragin dituen jakinarazpenen kopuruek gora egin dute lauhileko guztietan. Aipagarria da bigarren lauhilekotik hirugarrenera nabarmen egin duela gora: bigarren lauhilekoan 27 jakinarazpen eta hirugarrenean 53. Neurri

apalagoan, PAEen eta baimendu gabeko OGMen presentziak ere gora egin du lauhileko guztietan.



### 1.3. INPLIKATUTAKO PRODUKTU MOTA

Produktuka aztertuz gero, lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 76, pentsuek % 15 eta aurre-nahasketek % 9.




Jakinarazpenetan inplikaturiko produktu moten garakada lauhilekoka alderatuz gero, argi ikusten da lehengaietan antzemandako arrisku kopurua antzekoa izan dela lehenengo bi lauhilekoetan, eta nabarmen egin duela gora hirugarren lauhilekoan; izan ere, azken lauhilekoan jakinarazpen gehiago egin dira.

Pentsuek eragindako jakinarazpen kopuruak gora egin du bigarren lauhilekoan; baina, ondoren, behera egin du lehenengo lauhilekoaren mailara. Pentsuek


eragindako 30 jakinarazpenetatik 25etan laguntza-animientzako pentsuak egon dira inplikaturak.

Gehigarriek eta aurre-nahasketek jakinarazpen gehiago eragin dituzte hirugarren lauhilekoan gainerakoetan baino, eta gehienetan Txinako metal astunen presentzia antzeman da.




#### 1.4. JAKINARAZPENETAN INPLIKATURAKO LEHENGAIK

Lehengaien artean aipatzekoak dira arrain-irina eta soja-irina. Neurri apalagoan, kakahueteak (% 11), eta txakurrentzako mastekagarriak, liho-haziak eta gehigarriak (% 7) ditugu.





Soja-irinari eta arrain-irinari dagokienez, salmonella izan da gehienetan antzemanden arriskua. Azpimarratzekoak dira hirugarren lauhilekoan Peruko, Marokoko eta AEBetako arrain-irinean antzemandako salmonellaren gaineko jakinarazpenak.




Soja-irinak eragindako jakinarazpen kopuruak, arrain-irinarenak bezalaxe, gora egin du azken lauhilekoan Argentinako eta Brasileko sojan antzemandako salmonellagatik (jakinarazpenetako bi soja ekologikoko irinak eragin ditu).


### 1.5. 2006. ETA 2009. URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Jakinarazpenen kopuruaren bilakaerari dagokionez, 2008. urtean 182 jakinarazpen jaso ziren; 2009. urtean, aldiz, 194.

Alerta kopuruak behera egin du nabarmen 2008an eta 2009an; informazio-jakinarazpenek eta, batik bat, mugan egin diren ukapenek, ostera, gora egin dute 2009an.



Identifikatutako arriskuei dagokionez, 2006., 2007., 2008. eta 2009. urteetako kopurua oso antzekoa izan da; baina, 2009an zertxobait gora egin dute baimendu gabeko OGMek. Nabarmendu egin behar dugu mikrobiologia arriskuen eragina, betiere antzemandako gainontzeko arriskuekin alderatuz gero.




Fuente: Comisión Europea (RASFF)



**ELIKAGAIAK**

## 2.1. ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA


2009an Alerta Azkarra Sistemaren (RASFF) bidez **2975 alerta eta informazio-jakinarazpen** jaso dira.




## 2.2. ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, aipatu behar da Asiak (% 40) eta Europak (% 30) eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Hala ere, Ameriketako jakinarazpen kopuruak gora egin du (ia % 9), behera Asiakoak (% 13) eta bere horretan eutsi dio Europakoak.

Honako hauek izan dira urteko batez bestekoak:




Hauxe izan da arriskuen jatorriaren gorakada lauhilekoka:




### 2.3. ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Aurreko urteetan bezalaxe, mikotoxinek eragin dituzte jakinarazpen gehien, nahiz eta murrizten jarraitzen duten. Aurten, kutsadura biologikoa izan da jakinarazpen gehien sortu dituen bigarren taldea; baina, ez da alderik egon kutsadura kimikoarekin.


Hauk izan dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:






**MIKOTOXINEK** eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienak (% 86) **Aflatoxinek** eragin dituzte. Eta, horrelakoetan, kakahueteek eragin dute kutsadura kasuen % 37,5. Horren ondotik, pistatxoa izan dugu (% 20). Kakahuete gehienak (% 35) Argentinakoak izan dira.


Hona hemen aflatoxinek eragindako jakinarazpenek 2009. urtean izan duten bilakaera:




**KUTSADURA BIOLOGIKOARI** dagokionez, jakinarazpenen %19 izan dira, eta talde honetan **Salmonella sp.** nabarmendu behar dugu, kutsadura biologikoen % 43 eragin baitu (urteko batez bestekoa). Honako hau izan da kutsadura biologikoek izan duten gorakada:




Badira *Salmonella* espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako *Salmonella* espezie batzuk. Horien artean salmonella exotikoak nabarmendu behar ditugu (% 88). Horien ondoren, *S.typhimurium* (% 9) eta *S.enteritidis* (% 3,5) azpimarratu behar ditugu. Produktu kaltetuei dagokienez, *S.enteritidisek* arrautzei eragin die bereziki (kasuen % 52,5). Guztiak Espainiako arrautzak izan dira. *S.typhimuriumek*, aldiz, Europako txerri-haragiari eragin dio (kasuen % 62). *Salmonella* exotikoei dagokienez, jakinarazpen % 32 oilategi-hegaztiek eragin dituzte. Hegazti horiek gehienak (% 85) Europakoak izan dira.



**KUTSADURA KIMIKOARI** dagokionez, jakinarazpenen % **15** izan dira. **Koloragarriek eta gehigarriek** alerten eta jakinarazpenen % **45** eragin dituzte. Talde horren barruan gozokiak, ozpinkiak eta elikagai gehigarriak izan ditugu, eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak.




Bestalde, **METAL ASTUNAK** ere aipatu behar ditugu, **merkurioa** bereziki. Izan ere, gora egin du lehenengo lauhilekotik (kasuen % 34,5) azken lauhilekora (kasuen % **55**). Batez ere marrazoari eta ezpata arrainari eragin die (% 62).






## 2.4. AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak ugaritu egin dira urtetik urtera: 2006. urtean 2409 jaso ziren; 2008. urtean, berriz, 3021; eta 2009an zertxobait egin dute behera, 2975 jakinarazpen jaso dira hain zuzen. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har, antzeko joerak antzeman dira.



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu, konturatuko gara aurreko urteetako portzentajeari eutsi diotela. Nolanahi ere, aflatoxinen eta *Salmonella* sp.ren alerta kopuruak behera egin du apur bat, eta koloratzaileenak eta baimendu gabeko gehigarrienak, berriz, gora.






**ANIMALIEN  
GAIXOTASUNAK**

### 3.1. JAKINARAZITAKO FOKU-KOPURUA

**2009.** urtean, Europako Albaitaritzako Osasun Alerta Sareak (**RASVE**) **1.393 fokuren** berri eman du abereen gaixotasunei buruz.

Honako hau izan da 2009an jakinarazitako foku kopuruaren bilakaera lauhilekoka:



Grafikoan ikus daitekeen bezala, hirugarren lauhilekoan jaso dira jakinarazpen gehien, baitik bat, Mingain Urdin gaixotasunaren foku kopuruak (335) gora egin duelako Europan (301 Espainian).

### 3.2. JAKINARAZITAKO GAIKOTASUNAK


**Mingain Urdin gaixotasunak eta Zaldien Anemia Infekziosoak** eragin dituzte Europan jakinarazitako foku gehienak. Errumania eta Italia izan dira Zaldien Anemia Infekziosoaren foku gehien izan dituzten herrialdeak; Mingain Urdin gaixotasunaren foku gehien, berriz, Espainian antzeman dira.

Taula honetan jaso ditugu 2009an Europan jakinarazi diren gaixotasun guztiak eta gaixotasun bakoitzeko foku kopurua:

Gaixotasuna	Fokuen kopurua 2009an
Mingain Urdin gaixotasuna	678
Zaldien Anemia Infekziosoa	291
Koi Herpesbirusak eragindako gaixotasuna	140
Txerrien Izurri Klasikoa basurdeen artean	62
Behien Entzefalopatia Espongiformea	50
Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea oilategi-hegaztien artean	34
Gerri-azkura (Scrapie)	32
Newcastle Gaixotasuna	32
Septizemia Birus-Hemorragikoa	28
Zaldien Entzefalomielitisa, aldaera guztiak	16
Txerrien Xixkuko Gaitza	9
Patogenotasun Eskaseko Hegazti-gripea baso-hegaztien artean	8
Nekrosi Hematopoietiko Infekziosoa	6
Afrikako Txerri Izurria	4
Oso Patogenoa den Hegazti-gripea oilategi-hegaztien artean	1
Oso Patogenoa den Hegazti-gripea baso-hegaztien artean	1
Txerri Izurri Klasikoa	1
Afrikako Txerri Izurria basurdeen artean	1
Izokinen Anemia Infekziosoa	1
Hausnarkari txikien Anemia	1
Ardien Nafarrerria eta Ahuntzen Nafarrerria	1
<b>Guztira</b>	<b>1393</b>


Hurrengo diagramak adierazten du jakinarazpen gehien eragin dituzten fokuen portzentajea, foku guztiak aintzat hartuta:

16



Fuente: Comisión Europea (RASVE)

Hurrengo grafikoan adierazi dugu 2009an gaixotasun bakoitzak izan duen bilakaera, lauhilekoka:




Grafikoan ikus daitekeen bezala, **Mingain Urdin gaixotasunak (LA)** eragin ditu jakinarazpen gehien: **hirugarren lauhilekokoan** % 333 egin du gora, aurreko biekien erkatuz gero. Jakinarazpen gehienak Espainian egin dira; izan ere, birusa antzeman zen 2009ko udan Galizian. Baliteke horren arrazoa Portugalen birusaren zirkulazioa izatea, bai eta **Extremaduran eta Gaztela Leonen** antzeman den foku kopuru handia ere.

Azpitarratzekoa da, halaber, **hirugarren lauhilekokoan** gora egin duela **Herpesvirus Koi** Gaixotasunaren (E.H.Koi) foku kopuruak. Kaltetutako herrialdeak **Hungaria eta Alemania** izan dira. Koi herpesbirusak eragindako gaixotasuna Herpesviridae familiako birusak eragindakoa da. **Arranei** eragiten die, karpei hain zuzen ere, eta Europan derrigorrean jakinarazi beharreko gaixotasuna da. Gaur egun, karpa arrunta da birusaren ostalari bakarra; beraz, karpak dira kalteberenak infekzioaren aurrean. Gaixotasun hau kutsatzeko modua horizontala da (zuzenekoa edo zeharkakoa), eta ura da kutsatzaile nagusia. Nolanahi ere, ezin da baztertu hezurren bidezko transmisio bertikala.

**Basurdeen arteko Txerrien Izurri Klasikoak (P.P.C. basurdeak)** behera egin du nabarmen hirugarren lauhilekokoan, bi kasu baino ez dira jakinarazi: bata Hungarian eta bestea Bulgarian. **Lehenengo bi lauhilekoetan**, berriz, gaixotasun hori izan zen jakinarazpen gehien eragin zituen hirugarren gaixotasuna (43 foku 1. lauhilekokoan eta 17 2.ean). Lehenengo bi gaixotasunak Zaldien Anemia Infekziosoa (A.I. Equina) eta Mingain Urdin gaixotasuna (L.A.) izan ziren. Lehenengo bi lauhilekoetan kaltetutako herrialdeak **Alemania eta Hungaria** izan ziren.


### 3.3. JAKINARAZPENEN JATORRIA

2009an Europan egindako 1.393 jakinarazpenetatik 1280 honako zazpi herrialde hauetakoak izan dira:




Aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala, Espainiak egin ditu jakinarazpen gehien (482), ondoren Alemaniak (305), Italiak (199), Errumaniak (138), Portugalek (69), Poloniak (55) eta Hungariak (32).


Espainiari dagokionez, honako hauek izan dira jakinarazitako gaixotasunak (grafikoan gaixotasun bakoitzaren foku-kopurua zehaztu dugu):




Ikus daitekeen bezala, Espainian jakinarazitako 482 fokuetatik **427 Mingain Urdin gaixotasunak (L.A.) eragin ditu**. Honako hau izan da Espainian gaixotasun honek izan duen banaketa probintziaka:



**Gerri-azkura (Scrapie) gaixotasunaren 32 fokua**k honela banatu dira Espainian:



**Behien Entzefalopatia Espongiformeari (E.E.B.) buruz egindako 20 jakinarazpenak, berriz, honela banatu dira:**




**Newcastle Gaixotasunaren** fokua 2009ko azaroaren 27an jakinarazi zuten Eusko Jaurlaritzako albaitaritzak erakundeek. Fokuak Zumaiako (Gipuzkoa) hegazi zinegetikoen ustiategi bati eragin zion. Gaixotasunak ustiategiko faisaiei eragin zien hain zuzen (11.000 zituzten erroldatuta), nahiz eta galeperrak eta eperrak ere bazituzten.

**Oso Patogenoa den Hegazi-gripearen fokua** Guadalajara probintziako Almoguera udalerrian antzeman zuten. Joan den urriaren 11n baieztatu zuten Algeteko Erreferentziazko Laborategi Nazionalak. Serotipo kaltetua H7N7 izan zen. 2009an Europan jakinarazi den lehengo fokua izan zen, eta bakarra.

### 3.4. 2006. ETA 2009. URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Honako hau izan da 2006tik 2009ra bitartean jakinarazitako fokuen kopurua:





Aurreko grafikoan ikus daiteke 2009an jaso direla jakinarazpen gehien (1.292), aurreko hiru urteekin erkatuz gero. Bestalde, aipatzekoa da 2007. urtean foku kopuru handia jakinarazi dela (13.571), batik bat, Mingain Urdin gaixotasunak foku ugari eragin dituelako (11.561 foku 2007an). Horietatik 7.916 Espainiak jakinarazi ditu.

2006., 2007., 2008. eta 2009. urteetan aipagarrienak diren gaixotasun batzuen bilakaerari dagokionez, **Mingain Urdin gaixotasuna (L.A.)** azpimarratu behar da; izan ere, foku kopuruak gora egin du 2007an. Bestalde, aipatzekoa da **Zaldien Anemia Infekziosoaren (Zaldien A.I.)** foku kopuruak 2008an gora egin bazuen ere, behera egin duela 2009an.

